

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HIRI EREDUAREN, HIRIGINTZAREN, ETXEBIZITZAREN,
GARBIKETAREN ETA INGURUMENAREN SAILA

Jendaurrean jartzea prezioak berrikusteko formula zehazteko kostuen egituraren proposamena, Vitoria-Gasteizko hiri-garbiketa publikoa egin eta hiri-hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzuaren kontraturako

2024ko urriaren 16an, kontratazio-organoak onartu egin du Vitoria-Gasteizko hiri-garbiketa publikoa egin eta hiri-hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzuaren kontraturaren kostuen egituraren eta prezioak berrikusteko formularen proposamena.

Espainiako ekonomiaren desindexazioaren martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen duen otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuaren 9.7 artikulua ildotik, kostuen egituraren proposamen hau jendaurrean jarriko da hogeit (20) egun baliodunez, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hogei eguneko epe horretan, interesdunek proposamenari buruz egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Dosierraren dokumentazioa udalaren webgunean kontsulta daiteke, esteka hauetan:

- Kostuen egiturari eta prezioak berrikusteko formulari buruzko proposamenaren txostena: https://v-g.eus/informe-contrato_limpieza.
- Kontratazio-organoak proposamenaren onarpena: https://v-g.eus/resolucion-contrato_limpieza.

Herritar orok jakiteko eta dagozkion ondorio legeletarako ematen da argitara.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko urriaren 17an

*Vitoria-Gasteizko Udaleko Hiri Ereduren, Hirigintzaren,
Etxebizitzaren eta Ingurumenaren Saileko zinegotzi ordezkaria*
BORJA RODRÍGUEZ RAMAJO